



**EUROPA – LATINOAMERIKA I. KOPRODUKZIO FOROA
I. FORO DE COPRODUCCIÓN EUROPA – AMÉRICA LATINA
I. EUROPE - LATIN AMERICA CO-PRODUCTION FORUM**





DONOSTIA ZINEMALDIA: EUROPA – LATINOAMERIKA I. KOPRODUKZIO FOROA

Donostia Zinemaldia Latinoamerika eta Europako zinemagintzako topagune garrantzitsuenetako bat bilakatu da, arrazoi historiko, kultural eta ekonomikoengatik; horretan lagungarri izan dira Zinema Eraikitzen ekimena edota Horizontes Latinos saila, besteak beste.

Lotura hori sendotzeko asmoz eta Euskal Herriko, Latinoamerikako eta Europako ikus-entzunezko industriaren erreferente izateko, Donostia Zinemaldiak 2012an Europa eta Latinoamerika arteko I. Koprodukzio Foroa jarri du abian.

Mamitzen ari diren proiektuei zuzenduta dagoen ekimen hau Donostia Zinemaldiaren hurrengo edizioari begira pentsatutako jardueren artean dago, industriarekin dituen loturei dagokienez (ikus ERANSKINA). Orain artean, horixe izan da Zinemaldiaren gabezia nagusia; horrenbestez, honela geratuko litzateke artikulatuta: Zinema Eraikitzen, Zinema Mugimenduan eta Koprodukzio Foroa.

Foroa martxan jartzeko, ezinbestekoak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren babesa eta ekoizle-elkarteen eta Euskadiko ikus-entzunezkoen alorreko eragile garrantzitsuenen lankidetzeta eta inplikazioa.

Jarduera horiez gain, Industry Clubek Euskadi-Brasil koprodukzio topaketa eta dokumentalei eskainitako Lau Haizetara koprodukzio-foroa antolatzen du beste batzuekin batera. Horiez gain, zinemagintzako profesionalentzako neurri sortutako zenbait zerbitzu eskaintzen ditu; besteak beste, aurkezpenen antolaketa, profesionalen arteko topaketak, etab.

Hala, Zinemaldiak konpromiso irmoa hartu du ikus-entzunezkoen industriarekin elkarrekin lan egiteko, aukera berriak sortzeko, talentu berriak sustatzeko, neurri handiko proiektuen ekoizpena dinamizatzeko eta ekoizpenen merkaturatzea eta internazionalizazioa indartzeko.

Babesle
ofiziala

Patrocinador
oficial

tve

gasNatural
fenosa





Zer helbururekin?

- Ekoizpen aukera berriak sustatzea Latinoamerikako eta Europako zinema-industriarako, koprodukzio-foro bat sortuta.
- Donostia Zinemaldiaren rola indartzea nazioarteko erreferentzia-plataforma gisa, Europako eta Latinoamerikako ikus-entzunezko industriaren arteko harremanak estutzeko.
- Ikus-entzunezko proiektu berritzaileei bultzada ematea, neurri handikoei, industriako beste profesional batzuen edota salmenta- eta finantza-agenteen arteko harremanak sustatuta, eta, bide batez, kontinenteen arteko koprodukzio-sareak eta sustapenak sendotuta.
- Europako ikus-entzunezko negozioari ikus-entzunezko merkatuak zabaltzea eta negozio-aukera berriak topatzea Latinoamerikan; izan ere, herrialde horietako zinemagintzak goraldi ekonomiko eta kreatibo garrantzitsua bizi du.
- Profesionalen arteko kooperazioa sustatzea eta enpresen alorreko aliantza estrategikoak sendotzea (*Networking*).
- Esperientziak eta jakintza trukatzeko testuingurua sortzea, industriaren beharrezan aurrea hartzeko, merkatuaren aldaketetara egokitzeko, eta edukietan zein teknologietan aukera berriak nahiz joera berritzaileak identifikatzeko (aurkezpenak eta lan-tailerrak).

Norekin?

Kolaboratzaileak:

Donostia Zinemaldiak, bere neurri eta ezaugarriak aintzat hartuta, ez dauka industriarako merkatu bat sortzeko asmorik. Aitzitik, ekimen horrekin bat egin eta nazioartean sendotuta dauden proiektuak osatzeko intentziona dauka, Donostia Zinemaldiaren aliantza estrategikoen sarea sustatuaz.



Helburu honentzat Latinoamerikako hainbat zinema-erakundek Europako zinema-industriarekin lotura estutzen duen proiektu honen aldeko interesa agertu dute. Hala, honako hauen babesak dauka: Mexikoko Zinematografia Erakundea (IMCINE), Proimágenes Colombia, Cinema do Brasil eta Zinemako eta Ikus-entzunezko Arteen Argentinako Erakundea (INCAA).

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren babesari esker, foroaren helburua industriak berak eraikitako eta eutsitako plataforma izatea da. Dagoeneko izan ditugu lehendabiziko kontaktuak –oso positiboak, gainera– nazioarteko ekoizpen- eta banaketa-etxeekin. Baita erakunde eta instituzioekin ere: EIKEN (Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra), FAPAE (Espainiako Ikus-entzunezkoen Ekoizleen Elkarten Federazioa), IBAIA (Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen Ekoizle Burujabeen Elkarte), EPE-APV (Euskal Produktoreen Elkarte), Etxepare Euskal Institutua, Media Antena Euskal Herria eta Zineuskadi; Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Espainiako Gobernuarekin, Ibermedia Programarekin, Film Commission-ekin erakundeekin, eta abar.

Zer da?

Koprodukzio Foroa zinemagintzako proiektuak aurkezteko plataforma da, *pitching* eta *one to one* formatuan artikulatuta dagoena, eta ikus-entzunezkoen arloko profesionali zuzenduta; hala, nazioarteko industriako 150 profesionalak Europako eta Latinoamerikako hogeitau proiektu ezagutu ahal izango dituzte gehienez ere, aldezturik Zinemaldiak aukeratu dituenak nazioarteko hiru adituen batzorde baten informeei esker. Europako proiektuek lotura eduki beharko dute Latinoamerikarekin; bai ekoizle-kide latinoamerikarra bilatzeagatik, bai Latinoamerikan lokalizatuta egoteagatik, bai aktore latinoamerikarrak edukitzeagatik, edota tankerako arrazoiengatik.

Foroa bi jardunalditan egingo da, Zinemaldiaren barruan. Proiektuen arduradunek kolaboratzaile estrategikoak topatu ahal izango dituzte, baita industrialak eta finantzarioak ere, proiektuen koprodukziorako gonbidatu diren profesionalen artean. Proiektuak aurkezten dituztenek hitzorduen agenda pertsonalizatua izango dute interesa azaldu duten profesionalekin,



Era berean, espazio osagarriak ere egongo dira, bai eta proiektuen *pitching* saioak egiteko aretoa eta nazioarteko koprodukzioetan esperientzia handia duten ekoizpen-etxeentzako gunea ere; hala, beren hitzordu-agenda prestatu ahalko dute, etorkizuneko proiektuei eta harreman orokorragoei begira.

Ekintza paraleloak:

Foroarekin batera, beste espazio paralelo bat ere izango da; hain zuzen ere, topaketarako, harremanetarako eta ezagutzarako espazio bat, industriako profesionalentzako eta ekoizleentzako tresna garrantzitsua izango dena. Batez ere nazioarteko koprodukzio eta merkatuetan esperientzia handirik ez duten gazteentzat egongo da bideratuta.

Jarduera horiek bi formatutan egongo dira planteatuta:

A.- Topaketa ez-formalak (Networking):

Foroko parte-hartzaileek topaketa ez-formalak eduki ahal izango dituzte elkar ezagutzeko, esperientziak trukatzeko eta etorkizuneko proiektuetarako lankidetzak ezartzeko; guztia ere kokteletan, gosarietan, bazkarietan edota afarrietan. Erakunde zinematografikoak izan litezke ekitaldi horien babesle, bai eta profesionalen elkarteak ere.

B.- Aurkezpenak (lan-tailerrak):

Hainbat formatutan egongo dira artikulatuta: hitzaldiak, aurkezpenak, aztertze kasuak, eztabaidamahiak eta adituen hitzaldiak antolatuko dituzte, zinemagintzako koprodukzioaren alderdirik garrantzitsuenak bertatik bertara ezagutzeko. Esate baterako, proiektuak nola taxutu nazioarteko finantzazioa lortzeko, aldaketa teknologikoen eta formatu berrien aukerak identifikatzea, sektorearen garapen ekonomiko berriak, arrakasta kasuak, *Networkings* sareak nola eraiki, eta abar.



Nola egiten du lan?

Deialdia:

Deialdia garapen-fasean dauden nazioarteko ikus-entzunezko proiektuetarako da, eta interesdunek ondokoak aurkeztu behar dituzte: proiektuaren aurkezpena (orri bat), sinopsi labur eta luze bana, zortzi eta hamabi orri bitarteko tratamendua, elkarrizketadun sekuentzia oso bat, aurrekontua, eta finantzaketa-plana. Finantzaketa-plan horretan, ziurtaturik dagoen finantzaketa zehaztu behar da (% 20 gutxienez), baita ziurtatzeke dagoena ere. Era berean, ekoizpen-etxearen profila eta ekoizlearen zein zuzendariaren filmografia ere adierazi behar dira. Dokumentazio guztia bi hizkuntzatan bidali behar da: ingelesez eta gaztelaniaz.

Kontuan hartuko da proiektua foro batean aurkezten den lehen aldia ote den, ekoizpen-etxeak aurrez nazioarteko koprodukzio bat gutxienez egin duen, eta zuzendariak burututako lanak biltzen dituen dokumentazio osagarria.

Fikziozko proiektuak aurkeztu daitezke, baldin eta gutxienez 60 minutu irauten badute, eta transmedia proiektuak ere bai. Finantzaketaren % 20 gutxienez ziurtaturik eduki behar dute.

Hautaketa:

Donostia Zinemaldiak nazioarteko hiru adituren bitartez erabakiko du zer proiektuk hartuko duten parte foroan: adituetako bat Latinoamerikakoa izango da, beste bat Espainiakoa, eta hirugarrena Europako beste herrialderen batekoa. Honako irizpideak hartuko dira aintzat proiektuak balioesteko: proiektuaren kalitate artistikoa eta sortzailearen talentua, nazioarteko koprodukzio gisa duen bideragarritasuna, merkaturako duen erakargarritasun potentziala, eta formatu berrietan esperimentatzea.



Aukeratutako proiektuen inguruko txostenak sarean aldeztu aurretik argitaratuko den katalogo batean agertuko dira. Foroan aldeztu aurretik izena emanda dauden profesionalak bakarrik eskuratu ahal izango dute katalogo hori.

Donostia Zinemaldiaren web orrian, aukeratutako proiektuen izenburua argitaratuko da, baita zuzendariaren eta ekoizpen-etxearen izena ere.

Baldintza bereziak:

- Parte hartzeko, ez da tasarik ordaindu behar.
- Proiektua hautatua izanez gero, beharrezkoa izango da ekoizlea edo/eta zuzendaria foroan bertan izatea. Hala ere, gomendagarriena biak etortzea litzateke.
- Aukeratutako proiektuen ekoizpen-etxeek, ekoizpenak amaitutakoan, Donostia Zinemaldiaren logoa ipini beharko dute kredituetan. Era berean, honako esaldia ere txertatu beharko dute: «(Filmaren izenburua) filmak I. Donostia Zinemaldiko Koprodukzio Foroan parte hartu du.»

Zer espero dugu?

- Donostia Zinemaldia Europako eta Latinoamerikako zinemagintzaren arteko lotura-gune eta erreferentziako plataforma gisa sendotzea, Europako eta Latinoamerikako industriak sendotzen lagunduta, hain zuzen ere Espainiakoa eta zehatzago esanda, Euskal Herrikoa. Horrez gain, kontinenteen arteko koprodukzioak ugartzeko ekarpena egingo da.
- Koprodukzio-foroa ikus-entzunezko industriaren eragile traktore bilakatzea, lankidetzak sustatzeko hitzarmenak eta aliantza estrategikoak sustatuta, bai proiektuen koprodukzioarako, bai nazioarteko filmak banatzeko zein sustatzeko.
- Europako eta Latinoamerikako profesionalen artean sinergiak sortzea eta sareko lanak sustatzea. Bi zinemagintzak aberastu egingo dira, elkarren artean jakintza eta esperientziak trukaturik.



- Ikus-entzunezko proiektuak amaitzea eta proiektu horiei estaldura osoa ematea, hasi ikasleen topaketetako trebakuntzan, garabidean diren proiektuei zuzendutako koprodukzio-foroan,

postprodukzioa amaitzeko balio duen Zinema Eraikitzen sailean, eta, azkenik, amaitutako filmak ematen dituzten sailetan (Sail Ofizialean edota Horizontes Latinos sailean esaterako).



I. ERANSKINA: INDUSTRIA TESTUINGURUA – DONOSTIA ZINEMALDIA

8. ZINEMA MUGIMENDUAN

Zinema Mugimenduan Sailak, Amiens-eko (Frantzia) eta Friburgo-ko (Suitza) nazioarteko zinema-jaialdiekin lankidetzan, filmatzen amaitzen edota postprodukzio-fasean dauden filmen aurkezpena bideratzen du. Filmak Magrebekoak, edota garabidean diren herrialde arabiarretakoak izaten dira; hala nola Irak, Jordania, Libano, Palestina, Siria eta Afrika kontinenteko herrialdeak orokorrean. Film horiek eta beren zuzendariak industriako profesionalekin eta zinema-erakundeekin harremanetan ipintzeko espazioa topatzen dute Donostia Zinemaldian.

Zinema Mugimenduan sailak honako hauen babesak dauka: Casa Árabe (IEAM), Mactari (nahasketen auditoriuma), Zinemaren eta Irudi Bizidunen Frantziako Zentroa (CNC), Dubaiko Nazioarteko Zinema Jaialdia, Titra Film, Andaluziako Ikus-entzunezkoen Fundazioa, eta Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Portugalgo Erakundea (ICA).

22. ZINEMA ERAIKITZEN

Hitzordu hau Toulouseko Rencontres Cinémas d'Amérique Latine topaketekin batera antolatzen da, eta helburua Latinoamerikako fikziozko film luzeak amaitzeko erraztasunak ematea da; hain zuzen ere, filmatzen amaitu ostean, postprodukzio-fasean zailtasunak edukitzen dituztelako, bai eta zinema-aretoetan estreinatzeko ere.

Behin-behineko egoeran dauden Latinoamerikako filmen programa, elkarrekin aukeratua, modu eskusiboan aurkeztuko diete profesionalei (ekoizleak, banatzaileak eta filmak emango dituztenak, salmenta-enpresak, telebista-kateak, industria teknikoak, laguntza-funtsak, erakundeak eta zinema-jaialdiak), modu erabakigarrian jardun baitezakete obra horiek ikusleengana irits daitezten.



Industriaren Zinema Eraikitzen Saria (Donostian) honakoek ematen dute: Daniel Goldstein S.L., Deluxe Spain, Dolby Iberia S.L., Imasblue, Kodak S.L., Nephilim producciones S.L., No Problem Sonido S.L eta Vértigo Films S.A. –k eta 200.000€ ingururarteko balioa izango du.

Era berean, Zinema Eraikitzen honako hauek ere kolaboratzen dute: Media Mundus, Programa Ibermedia, CSF (Cinéma Sans Frontières), Instituto Cervantes eta honakoen lankidetzak: Caisse Centrale d'Action Sociale (CCAS), Centre National du Cinéma et de l'Image Animée (CNC), CINÉ+, Cinéfondation, Commune Image, Confédération Internationale des Cinémas d'Art et Essai (CICAIE), Conseil Général de la Haute Garonne, Conseil Régional Midi-Pyrénées, CROUS de Toulouse, Eaux Vives, École Supérieure d'Audiovisuel (ESAV), EP2C - Postproduction Training Programme, Europa Distribution, Firefly, La Trame, Mactari, Mairie de Toulouse, Marché du film, Signis eta TitraTVS.

BRASIL-EUSKADI KOPRODUKZIO TOPAKETA

Topaketa hau Donostia Zinemaldiak, Etxepare Euskal Institutuak eta, Cinema Do Brasil erakundeak, Brasileko Kanpo Harremanetarako Ministerioak eta ANCINE-k (Zinema Agentzia Nazionala) antolatzen dute, IBAIA-ren (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte) eta EPE-APV-ren (Euskal Produktoreen Elkarte) babesarekin.

Euskadik eta Brasilek koprodukzio proiektuak aztertuko dituzte Donostia Zinemaldian. Guztira Brasilgo hamar ekoizpen-etxek eta Euskal Herriko gutxienez beste hamarrek esku hartuko dute Euskadi eta Brasil koprodukzio-topaket honetan.

Hitzordua IBAIAren eta EPE-APVren lankidetzarekin antolatuko da, eta Donostia Zinemaldiak irauten duen egunetako batean izango da, Kurasaalen. Hitzordu honen helburua Brasilgo industriarekin harremanak estutzea izango da. Horrez gain, bi herrialdeetako ekoizleen artean aurkeztuko dituzten proiektuen koprodukzio aukerak ere aztertuko dituzte, baita erakunde antolatzaileek eskaintzen dituzten koprodukziorako laguntzak ere.



LAU HAIZETARA, DOKUMENTALEN VIII. KOPRODUKZIO FOROA

Zinemaldiaren hurrengo edizioan, IBAIAk (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte) bultzatutako Lau Haizetara Ikus-entzunezkoen VIII. Koprodukzio Foroa egingo da, The Industry Clubekin elkarlanean.

Foroaren helburu nagusia ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen topagune izatea da, dokumentalen koprodukzioak bultzatzeko eta Europako eskualdeetako ekoizleen arteko harremanak sendotzeko.

Dokumentalak bakarrik jorratzen dituzten atal honetan, *pitching* saioak eta banan banako bilerak egiten dituzte, hautatutako proiektuak ahalik eta sakonen eztabaidatzeko.